



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoak 21

Vitoria-Gasteiz, 21 de marzo de 2023

Lehendakaritza

GAZTEEN EMANTZIPAZIOA LAGUNTZEKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA ONARTU DU GAUR EUSKO JAURLARITZAK

- **Gazteriaren Legearen eta Erronka demografikoaren estrategiaren aurreikuspenak garatzen ditu, 2022ko martxoan eta ekainean onartuak, hurrenez hurren**
- **2030erako helburua da 28 urterekin emantzipatzeko batez besteko adina murriztea eta emantzipazio-tasa % 50eraino igotzea**
- **Hamar trakzio-proiektu eta 27 ekimen osagarri biltzen ditu, bost eremutan egituratuta: enplegua, etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia**
- **Berrikuntzetako bat da hilean 300 euroko laguntza ematea bi urtez 25 eta 29 urte bitarteko gazteei, 2024an jarriko dena indarrean**
- **Garrantzitsuena da ez dela ekimen isolatu bat, gazteen autonomia-prozesuak errazteko neurrien ekosistema baten parte da**
- **Hamargarren trakzio-proiektuak gazteriarekin eta gazteriaren alde herri-ituna bultzatzea planteatzen du, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan estuan**

Gobernu Kontseiluak Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia onartu du gaur. Gobernu Programaren 92. konpromisoari erantzuten dio. Emantzipatzeko batez besteko adina aurreratzea lotuta dago gazteen aukerekin, euskal gizartea gaztetzearekin eta belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko kohesioarekin. Herri-helburua da, eta lehen mailako lehentasuna Eusko Jaurlaritzarentzat.

Abenduaren 7an, Gobernu Kontseiluak hasierako proposamenaren berri izan zuen, eta bi hilabeteko epea zabaltzea adostu zuen edukian parte hartzea errazteko. Epe honetan, honako erakunde hauen ekarpenak jaso dira: Zedarrak Foroa, Bizkaiko Foru Aldundia, ELKARTEAN (Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Euskadiko Elkarte Koordinatzailea), FEDEAFES (Gaixotasun mentala duten pertsonen eta haien senideen elkarten Euskadiko Federazioa), EGK (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua), Astialdi Sarea eta EUDEL.

Eusko Jaurlaritzak agerraldia izan zuen, gainera, otsailaren 22an Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean bere edukia aurkezteko. Horrela, Estrategiaren azken dokumentuak ekarpen ugari txertatu

ditu, edukia hobetu dutenak eta datuak eta aurreikuspenak eguneratu dituztenak.

Estrategiaren dokumentua bi liburukitan aurkezten da: I. Anlisi Esparrua eta II. Esparru operatiboa. Lehenengoak analisirako oinarri gisa balio duten datuen eta erreferentzien multzoa eskaintzen du. Diagnostiko horren arabera, lehenik eta behin, emantzipazioaren atzerapenaren faktoreak ez dira materialak bakarrik, kulturalak ere badira.

Hala ere, materialen artean, denboran zehar elkarri lotutako eta metatutako hiru faktore nabarmentzen dira argi eta garbi: enplegua, etxebizitza eta errenta erabilgarria. Azken hamarkadetan, gazteen belaunaldiek ziurgabetasuna jasan dute enpleguan eta enpleguaren kalitatean; etxebizitzaren eskasia eta garestitasuna; eta, azkenik, errenta erabilgarri eskasak.

Bigarren gakoari esker, jarduera nagusiak 25-29 urteko adin-tartean ardaztu behar direla esan daiteke, eta, bereziki, emantzipatzen ez direnen edo emantzipazioa finkatzen ez dutenen artean; izan ere, enplegua izanda ere, ez dute horretarako errenta nahikorik.

Estrategiaren bigarren dokumentuak bost ardatzetan egituratzen den jarduketa-plana barne hartzen du: enplegua, etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia. Ardatz horietako bakoitzari bi trakzio-proiektu lotzen zaizkio. Horrez gain, ardatz bakoitzaren barruan konektatutako beste ekimen batzuk edo ekimen osagarriak aipatzen dira, guztira 27 jarduera.

Estrategiaren helburua da 2030erako gazteen emantzipazio-tasa % 50era hurbiltzen laguntzea, eta maila horretan kokatzen da EB-27ko batez bestekoa (% 50,6). Emantzipatzeko batez besteko adinari dagokionez, helburua 28 urtetik beherakoa izatea da.

Estrategia horren irizpide nagusia da jada ezarritako politikak integratzea, trinkotzea eta optimizatzea, neurri eta jarduera berriekin batera, helburuen esparru berean. Azken batean, jarduteko sistema sinergiko bat konfiguratzeko.

Estrategiaren berrikuntzetako bat Emantzipa programa bultzatzea da. 2024an, hilean 300 euroko laguntza artikulatzea ahalbidetuko du, bi urtez, 28.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten 25 eta 29 urte bitarteko gazteentzat. Onuradunek etxebizitza libre bat alokatzeko edo erosteko kontratua izan beharko dute, eta alde zuzenetik erroldatuta daudela egiaztatuta beharko dute.

Ekimen garrantzitsua da, zalantzarik gabe, baina garrantzitsuena da ez dela ekimen isolatu bat. Belaunaldi gazteekin autonomia- eta bizitza- eta familia-proiektuak eraikitzeko prozesuetan lankidetzan aritzera bideratutako neurrien ekosistema baten parte da.

Bi urtetan, hilean 300 euroko laguntza emango zaie 25 eta 29 urte bitarteko gazteei, eta, horrez gain, honako laguntza hauek ere emango dira: hilean 200 euro seme-alaba bakoitzeko, hiru urtera arte; Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak, hilean 300 eurora irits daitezkeenak; Haur Eskolen 0-2

urteko etapa doakoa; ondorengoengatiko zerga-kenkariak; edo bateragarritasunaren arloan indarrean dauden neurriak.

Eta horrekin batera, enplegua eta enplegurako prestakuntza sustatzeko neurrien multzoa, Gazte Enpleguaren Talka Planaren bidez, edo kohesioa sustatzeko eta bazterkeria prebenitzeko neurrien multzoa, DSBEa eskuratzeko adina aurreratuz edo Trapezistak Programaren bidez.

Azken batean, Estrategia honek erakundeen eta gizartearen arteko lankidetzarako gune bat bateratu nahi du. Horregatik, hain zuzen ere, Estrategia honek itun handi bat sustatu nahi du gazteriarekin eta gazteriaren alde. Hamar trakzio-proiektuetatik hamargarrena eta azkena, hain zuzen ere, helburu hori garatzera bideratuta dago. Herri-helburua da eta lehen mailako lehentasuna. Adostasunik zabalena bilatzea eskatzen du.

Gaur onartutako Estrategiak ikuspegi integral eta progresibo bat proiektatzen du, Gazteriaren Legearekin, Erronka Demografikoaren Estrategiarekin eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta dagoena.

1. eranskina. Aurrekariak

Estrategia hori egiteko lehen urratsak 2021eko uztailetik urrira bitartekoak dira. Horretarako, parte-hartze- eta kontsulta-prozesuak bultzatu ziren gazteekin, Focus Group metodologiaren bidez garatuta. Dinamika horiek, ondoren, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK) egindako kontraste-prozesuekin osatu ziren, bai eta nazioarteko emantzipazio-politikei buruzko azterlan konparatu batekin ere, Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean eskuragarri dagoena.

2022ko martxoaren 10ean, 2/2022 Legea, Gazteriarena, onartu zen hiru, ardatz nagusirekin: gazteria-sistema eta -zerbitzuak sendotzea, gazteen parte-hartzea sustatzea eta emantzipazio-prozesuak sustatzea, batez ere adina aurreratzeko helburuan eraginez, 2030eko hamarkadaren horizontean 28 urte izan arte. Horrela, lege horrek estrategia horren edukiak kokatu behar diren esparru orokorra definitu zuen.

Bestalde, 2022ko maiatzaren 18an, Eusko Legebiltzarrak erronka demografikoari buruzko Osoko Bilkura monografiko bat egin zuen. Onartutako 74 ebazpenak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren azken dokumentuan sartu ziren, zeina ekainaren 21ean onartu baitzuen behin betiko Gobernu Kontseiluak. Estrategia horrek lehentasunezko lau jarduera-ardatz eta 36 jarduera zehaztu zituen. Lehenengo ardatza gazteen emantzipazioa da. Emantzipazioari buruzko estrategia espezifiko eta monografiko berri hori harekin lerrotatzen da, eta bere jarduera-plana indartu eta zabaltzen du.

Modu osagarrian, 2022ko irailaren 22an, Lehendakariak Politika Orokorraren Osoko Bilkuran iragarri zuen Gazteria Zuzendaritza, ordura arte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan zegoena, Lehendakaritzaren egiturari atxikita geratuko zela, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren barruan. Berregituratze horren helburua da gazte-politiken, emantzipazioaren eta erronka demografikoaren sailen arteko eta erakundearteko koordinazioa sustatzea, zeharkako ikuspegi batetik.

Erronka demografikoaren estrategia sortzeko prozesuan gertatu zen bezala, kasu honetan ere sailen arteko koordinazio- eta lankidetzeta-lan handia egin behar izan da, eta, Lehendakaritzarekin batera, Lan eta Enplegu Sailak, Hezkuntza Sailak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak parte-hartze berezia izan dute proiektu traktoreen eta jarduera lotuen edo osagarrien eraketan.

Aurrekari horiekin, 2022ko abenduaren 7an, Gazte Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia Gobernu Kontseiluari aurkeztu zitzaion, hasierako proposamen gisa. Une horretatik aurrera, bi hilabeteko epea ireki zen herritarren, erakundeen eta gazte-elkarteen sarearen ekarpenak jasotzeko.

Eusko Jaurlaritzak, gainera, agerraldia egin zuen 2023ko otsailaren 22an Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean, edukia aurkezteko. Horrez gain, Estrategiaren edukiak berrirakurtzeko eta hobetzeko prozesuan

parte hartu dute aipatutako Sailek, eta, bereziki, Gazteen Euskal Behatokiak, datuak eta estatistikak eguneratzeari dagokionez.

Lehen aurkezpena egin zenetik (abenduaren 7a) 2023ko martxoaren 21ean Gobernu Kontseilura behin betiko onartzeko bidali den arte igaro diren hiru hilabete eta erdietan garatutako estrategiaren edukiak berrikusteko eta parte hartzeko prozesuari esker, ekarpen ugari egin ahal izan dira, edukiak hobetu edo datuak eta aurreikuspenak eguneratu dituztenak.

2. eranskina. Jarduketa-planaren aurkibidea

Hona hemen Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiaren Jarduketa-planaren aurkibidea:

- **1. ardatza. Enplegua (eta enplegurako prestakuntza)**
 - I. trakzio-proiektua. Gazte Enplegurako Talka Plana (Berpiztu Programa): 13.500 lanpostu sortzea 2023-2024 aldian.
 - II. trakzio-proiektua. Gazteen enpleguaren aldeko akordioa bultzatzea Elkarrizketa Sozialaren Mahaian.
 - Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak enplegu arloan.
- **2. ardatza. Etxebizitza**
 - III. trakzio-proiektua. Emantzipazioa Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean sartzea, etxebizitza-sustapen publikoetan gazteentzako kupoa handitzea eta jarduera berritzaileak bultzatzea.
 - IV. trakzio-proiektua. Gaztelagun programa: laguntzaren zenbatekoa handitzea, Programa urtero eguneratzea eta sartzeko baldintzak hobetzea.
 - Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak etxebizitza arloan.
- **3. ardatza. Errenta**
 - V. trakzio-proiektua. 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipaziorako laguntza ekonomikoen Emantzipa Programa abian jartzea.
 - VI. trakzio-proiektua. Ekintzaitza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa garatzea.
 - Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak errenta arloan.
- **4. ardatza. Kohesioa**
 - VII. trakzio-proiektua. Trapezistak programa garatzea, 25 urtera arteko familia-laguntzako sarerik gabeko gazteei laguntzeko.
 - VIII. trakzio-proiektua. Zaurgarritasun-egoeran dauden gazteei (18 urtetik gorakoei) laguntzeko neurriak garatzea.
 - Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak kohesio arloan.
- **5. ardatza. Erresilientzia**
 - IX. trakzio-proiektua. Aholkulari-tza eta lagun-tza pertsonalizatuko zerbitzua, autonomia-ibilbideak eta emantzipazio-kultura berria bultzatzeko GAZ Zerbitzua sortzea; bai eta Ameslariak Programa garatzea ere.
 - X. trakzio-proiektua. Basque Deal for Youth (Herri-ituna gazteekin eta gazteen alde).
 - Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak erresilientziaren eremuan.

Jarduera-plan honek, halaber, zeharkako ardatz gisa hartzen ditu aurrekontu-kudeaketari, urteko jarraipen-memoriei eta ebaluazioari dagozkien atalak, eta bi eranskinekin osatzen da: lehenengoan, gazteriarekin eta gazteriaren aldeko herri-itun baterako abiapuntuen proposamena jasotzen da; bigarreanean, berriz, Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiaren adierazleen taula aurkezten da.

Segurtasuna

ALDERDI POLITIKOEN FUNTZIONAMENDU ARRUNTERAKO 2023KO DIRULAGUNTZA ONARTU DA

- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan 4.536.000 euroko kontu-saila izendatu da 2023rako

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoei emango zaien dirulaguntzaren banaketa. Dirulaguntzaren helburua 2023rako funtzionamendu arrunterako gastuei erantzutea da.

Banaketa kalkulatu da Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetako emaitzak, hau da, botoak eta eserlekuak, Euskadiko Hauteskunde Batzordeak EHAA argitaratuak, kontuan hartuta.

ALDERDI POLITIKOA	BOTOAK GUZTIRA EAEn (*)	ESERLEKUAK
EAJ-PNV	349.960	31
EH Bildu	249.580	21
PSE-EE (PSOE)	122.248	10
Elkarrekin Podemos-IU	72.113	6
PP+Cs	60.650	6
VOX	17.569	1
GUZTIRA	872.120	75

(*) Dirulaguntza-eskubidea ematen duten botoak guztira Euskal Autonomia Erkidegoan.

ALDERDI POLITIKOA	DIRULAGUNTZA GUZTIRA
EAJ-PNV	1.838.415,76 €
EH Bildu	1.288.756,87 €
PSE-EE (PSOE)	625.484,27 €
Elkarrekin Podemos-IU	371.005,54 €
PP+Cs	331.258,58 €
VOX	81.078,98 €
GUZTIRA	4.536.000,00 €

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

ARGI BERDEA EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO ETA DIMENSIONATZEKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI

- **Gobernu Kontseiluak euskal sektore publikoa aztertu eta lankidetzara eta koordinazio formulak proposatzea helburua duen araudia onartu du**

Gobernu Kontseiluak Euskal Sektore Publikoaren Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde arteko Batzordea arautzen duen Dekretua onartu du gaur. Organo hori Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legean ezarritakoa betez arautzen da, eta tresna garrantzitsua izango da gainjartzeak eta bikoiztasunak saihesteko.

Euskal Sektore Publikoaren Legeak sektore publikoaren dimentsionamendua eta eraldaketa bilatzen du, betiere euskal administrazioen tamaina beren helburu eta eginkizunetara egokitua izan dadin. Bide horretan, Erakunde arteko Batzordea trakzio-eragile izateko pentsatuta dago, eta bere eginkizunek gobernuei eragiten dizkie, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakunde maila guztietan.

Sektore publikoen arteko balizko eraginkortasunik ezei, gainjartzei eta bikoiztasunei aurre egiteko proposamenak aztertzea eta formulatzea da Batzordearen eginkizunetako bat; bereziki, euskal sektore publiko osoari eta Estatuko sektore publikoari dagokienez. Halaber, Batzordea administrazioen arteko lankidetzari eta koordinazioari lotutako proposamenak aztertzeaz eta formulatzeaz arduratuko da, bai eta administrazio publikoen eta sektore publikoen antolaketaz eta funtzionamenduaz ere.

Dekretuaren arabera, herri-administrazioaren arloan eskumena duen sailburua izango da batzordeburua, gaur egun Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua, Olatz Garamendi. Batzorde horrekin batera, Eusko Jaurlaritzak izendatutako lau adituk, Foru Aldundiek izendatutako hiruk eta Eudelek izendatutako beste hiruk osatuko dute Batzordea.

Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu ondoren, datozen asteetan maila instituzional bakoitzeko ordezkariak izendatuko dira, eta Batzordeko presidentek izendatuko ditu.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

ZORTZI PROIEKTU ERALDATZAILE 2030. URTEAN EUSKADI JASANGARRIAGOA IZATEKO

- **Hamarkada amaitu arte ingurumen-politikak gidatuko dituen 2030erako bosgarren Ingurumen Esparru Programa onartu da, euskal gizarteko hainbat eragile eta sektoreren parte-hartzea izan duen prozesu zabal baten ondoren**
- **Dokumentuan bildutako 8 proiektu eraldatzaileek lurraldeko jarduera sozioekonomikoaren eremu ugari hartuko dituzte eraginpean, eta ingurumenaren zeharkakotasunaren ideia azpimarratuko dute.**
- **Lehendakariak zuzenduko du 2030erako Ingurumen Esparru Programa lantzeko taldeen bost koordinatzaileei eskainiko zaien harrera ofiziala**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak 2030erako Euskadiko Ingurumen Esparru Programa (IEP 2030) osatzen duten 8 proiektu eraldatzaileak aurkeztu ditu gaur, Gobernu Kontseiluaren ondoren. Programa hori Euskadiko ingurumen-politika hamarkadaren amaierara arte gidatuko duen iparrorratza izango da. 8 proiektu horiek arazo globalak lantzen dituzte ingurumen-ikuspegitik, eta jardunbide jasangarriagoak sortzeko ekintza disruptiboak egitea aurreikusten dute. Halaber, administrazioa, enpresak eta herritarrak inplikatu dituzte, baita hainbat sektore ere, hala nola merkataritza, hezkuntza, osasuna, finantzak eta lurraldearen antolamendua.

Tapiak adierazi duenez, “Ingurumen Esparru Programa berri honekin zehaztu ditugun proiektu eraldatzaileak asmo handikoak eta, asko, aitzindariak dira, Estatuan zein Europan. Jasangarritasun-egoera berri batera hurbildu nahi dugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da lankidetzaren publiko-pribatua, era horretan baterako gidaritza eta ahalmenak gehitzeko aukera berma daitezen. Halaber, beharrezkoa da euskal herritar guztiak inplikatzeko, haiek izan behar baitute gizarte-eredu jasangarriago baterako trantsizioaren benetako protagonistak.

Proiektu bakoitzak hainbat erreferentzia-mugarri ditu helburu espezifikoak eta jarduketa-esparru bakoitzean ebaluatu daitezkeenak lortzera bideratutako ekintza zehatzak konfiguratzeko. Zehaztutako 8 proiektu eraldatzaileek Eusko Jaurlaritzako sail askoren lan koordinatua bultzatzen dute. Honako hauek dira:

1.- Produktu eta zerbitzu jasangarriak erosteko zentral bat bultzatzea. Asmoa da euskal administrazio osorako erosketa publiko berde eta berritzailearen eredu bat sustatzea, administrazioen hornidura-kate osoa helburu horretara bideratzea eta etorkizuneko ingurumen-erregulazioei aurrea hartzea.

2.-Lurraldearen kohesio jasagarria sustatzea. Lurraldearen funtzio-aniztasunari eusteko eta hura bultzatzeko lankidetzak publiko-pribatuko sistema bat sortzean datza. Ildo horretan, paisaia-aniztasuna iraunaraztearen eta azpiegitura berdeen sorkuntzan aurrera egitearen alde egingo da, beste zenbait ekimenen artean.

3.-Osasunaren eta ingurumenaren behatoki bat eratzea. Osasunaren eta ingurumenaren arteko loturari buruz dagoen informazio eta jakintza guztia zentralizatzeko eta koherentzia emateko aukera emango duen eta horren inguruko erabakiak hobeto hartzea ahalbidetuko duen gune komun bat sortu nahi da.

4.-Balio-kateetan zirkulartasuna sustatzea. Asmoa da enpresei lehengaien erabileran eta bizi-zikloan ingurumen-aztarna murrizteko hartu beharreko erabakiak erraztea, eta, horretarako, tresna digitalen erabilera partekatzea eta balio-kate bereko enpresen artean datuak aztertzea.

5.-ETEEi jasagarritasunerako trantsizioan laguntzea. Asmoa da helburu hori lortzeko ibilbide-orriak diseinatzen laguntzea. Ildo horretan, ETEen lehiakortasuna hobetuko da jasagarritasunaren bitartez, finantzaketa jasagarriari lotutako kontzeptuak txertatuko dira, eta lankidetzak publiko-pribatua sustatuko da.

6.-Jasagarritasunaren zerbitzurako berrikuntza soziala sustatzea. Parte-hartze sozial aurreratuaren eredu bat bultzatuko da informazio integraleko sistema ireki eta gardenen bidez. Sistema horietan, Big Data erabakiak modu efiziente eta bidezkoan hartzea ahalbidetuko du. Horretarako, jasagarritasunari buruzko eztabaida sozialerako prozesu aurreratuak aplikatuko dira, eta gizarte-erantzunkidetasuna erraztuko da gazteek funtsezko zeregina betetzen duten esparruetan.

7.- Herritarrak kontsumo jasagarrian ahalduntzea. Aldaketa bat bultzatu nahi da produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko moduan, produkzio- eta kontsumo-eredu jasagarriago bat konfiguratzeko. Horretarako, zabalkundea sustatu nahi da, eta herritarrak merkatua ildo horretan eraldatzeko duten ahalmenaren inguruan kontzientziatu nahi dira.

8.-Finantza jasagarriak sustatzea. Proiektu honek planteatzen du ezinezkoa dela nahi dugun aldaketa lortzea hasieratik finantza-mundua inplikatzeko ez bada. Asmo horrekin, inbertsio jasagarriak errazteko esparru baten ezarpenari buruzko Europako erregelamenduaren egokitze bizkorra bultzatuko da.

Proiektu eraldatzaile horiek behar bezala bideratzeko, IEP 2030aren Idazkaritza Teknikoa sortuko da, eta 8 proiektuak koordinatuko dituzten eragileen arteko kanal ireki gisa funtzionatuko du, haien arteko interakzioa eta lankidetzak bultzatzeko.

Bestalde, parte hartzeko bi forok eragile sozial eta sektorialen inplikazioa bermatuko dute. Haietako bat Jasagarritasunaren Foroa izango da, IEP 2030 programa lantzen parte hartu duten eragileez osatua eta urtean behin egingo

dena, eta bestea, berriz, Herritarrek Parte Hartzeko Foroa, euskal gizarte osoari zabalkunde- eta eztabaida-prozesuak burutzea ahalbidetuko diona.

Parte hartzeko prozesu zabala

8 proiektu horiek zehazteko, oso prozesu berritzailea egin da. Prozesu horrek izaera bereizgarria eman die proiektuei, hainbat jarduera-esparrutako adituen parte-hartze zabalean eta ekarpen garrantzitsuak egin dituzten herritarren inplikazioan oinarritu baita. Horri guztiari esker, Euskadiko gizarte-, ekonomia- eta enpresa-jardueraren esparru osoa biltzen duen diseinu integral bat egin ahal izan da.

2030erako Ingurumen Esparru Programa zehazteko prozesua bi fasetan egin da, eta 2023. urtearen hasieran amaitu da, dokumentuaren azken idazketarekin.

Lehen fasea 2022ko irailera arte egin zen. Egoerari buruzko azterketa batean oinarrituta, ingurumen-erronka batzuk ezarri ziren 2030erako. Erronka horiek parte-hartzean oinarritutako prozesu baten xede izan ziren, eta euskal gizartearen esparru guztietako adituek esku hartu zuten. Sei lantalde sortu ziren, programari lotutako erronka bakoitzeko bat: ingurumena beste politika batzuetan txertatzea; ingurumena eta osasuna; jasangarritasun lehiakorra; kontsumo-eredu kontzientea eta jasangarria; finantzaketa jasangarria; eta monitorizazio eta kudeaketa aurreratua. Taldeek ideia berritzaileak proposatu zituzten zehaztutako erronka bakoitzari lotutako proiektu eraldatzaileetarako.

Bigarren fasea 2022. urteko azken hilabeteetan egin zen, eta herritarren eskura jarri zen adituen taldeek egindako lanean oinarrituta landutako programaren zirriborroa, Irekia webgunean. Egindako ekarpenei esker, azken dokumentua aberastu duten ondorio batzuk atera ahal izan dira.

Herritarren ekarpenetatik ateratako ondorioen artean, honako hauek aipa daitezke: gero eta konplexuagoak diren ingurumen-erronkei aurre egiteko diziplina anitzeko taldeen alde egin beharra, big datak jasangarritasunari lotutako arloetan erabakiak hobeto hartzeko eskaintzen dituen ahalmenak baliatzea edo haurrak eta gazteak ingurumenaren inguruan sentsibilizatzeko eta parte hartzeko aukera azpimarratzea.

Urkullu Lehendakariaren harrera

Gobernu Kontseiluan 2030erako Euskadiko V. Ingurumen Esparru Programa onartu ondoren, Urkullu lehendakariak harrera egin die gaur esparru hori zehaztu duten lantaldeak koordinatu dituzten 6 adituetako 5i. Esparru hori Euskadiko ingurumen-politiken iparrorratza izango da hamarkadaren amaierara arte, eta 2030. urterako lurralde jasangarriago bat lortzeko bidea ezarriko du.

Ekitaldian parte hartu duten koordinatzaileak honako hauek dira:

1. **Itziar Alkorta**, UPV/EHUko Udako Ikastaroen zuzendaria eta Donostia Sustainability Forumeko koordinatzailea; **ingurumena beste politika batzuetan txertatzeari** buruzko lantaldeko buru izan da.
2. **Cristina Ortiz de Salido**, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Programen arduraduna eta **osasunari lotutako ingurumen-bektore berriak txertatzea** landu duen taldeko koordinatzailea.
3. **Jorge Fernández**, Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren Energia eta Ingurumen Lab-eko koordinatzailea eta **jasangarritasun lehiakorrari** buruzko lantaldea zuzendu duena.
4. **Garbiñe Manterola**, BRTA – Basque Research & Technology Alliance-ko Transferentziako arduraduna eta **finantzaketa jasangarriari** buruzko lantaldeko koordinatzailea.
5. **Nerea Ortiz**, BC3-Basque Centre for Climate Change-ko Eragiketen burua (zuzendariaren ordez, María José Sanz) **monitorizazio eta kudeaketa aurreratuari** lotutako alderdiak landu dituen taldeko ordezkaria.

Seigarren koordinatzailea **Eneko Atxa**, chefa eta Azurmendi Taldearen jabea, izan da, **kontsumo kontziente eta jasangarria** landu duen taldeko koordinazioaz arduratu dena.

Euskadik ibilbide luzea egin du ingurumenaren arloan, eta legegintza-tresna berriak garatzen ari da, hala nola etorkizuneko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko EAEko Legea, izapidetzen ari dena, eta dagoeneko onartuta dauden plangintza-tresnak, hala nola Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana, Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plana eta Erosketa Berdearen Programa.

2030erako Euskadiko bosgarren Ingurumen Esparru Programak garapen-eredu jasangarri eta bidezko baterantz aurrera egitea ahalbidetuko du. Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Itun Berdearen bitartez bultzatzen du eredu hori — European Green Deal izenekoaren ildotik—. Itun horren helburua da ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-alderdia palanka nagusiak diren industriarekin eta teknologiarekin orekatzea.

[Datu garrantzitsuak](#)

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 5,7 MILIOI EURO BIDERATU DITU ARRASATE HERRI ESKOLA HANDITZEKO ERAIKIN BERRIA EGITEKO

- **Eraikin berriak Lehen Hezkuntzako sei gela eta gimnasioa hartuko ditu, besteak beste**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, 5.731.067,15 euro bideratzea Haur eta Lehen Hezkuntzako Arrasate Herri Eskola ikastetxea handitzeko eraikin berria egiteko, Arrasateko Musakola auzoan.

Orotara 3.552 metro karratuko azalera eraikia izango du eraikin berriak, lau solairutan banatuta (beheko solairua + horren gaineko 3 solairu), eta gaur egungo eraikinaren jarraipen gisa planteatzen da, komunikaziorako gune bertikalen bidez lotua, Elkano kalearekin lerrokatuta. Horretarako, egungo aterpea kendu egingo da dagoen lekutik eta eraikin berriak hartuko duen gimnasioaren azpian beste aterpe bat sortuko da. Eskolaren eraikin txikia ere – gaur egun hutsik dagoena- eraitsi egingo da, berriari leku egiteko.

Barruan, besteak beste, Lehen Hezkuntzako sei gela eta gimnasioa hartuko ditu. Gimnasioa – aldagelak barne – lehen solairuan kokatuko da, eraikin nagusitik nabarmenduta geldituko den irtengune gisa. Irtengune honek sarrerako atari eta jolastoki estalia sortuko ditu bere azpian. Jangela eta officea beheko solairuan kokatuko dira.

Lehen Hezkuntzako eraikin berriak ipar-ekialderako orientazio egokia izango du, eta espazio guztiei argiztapen neutroa emango zaie, egungo eraikinean dauden gelek in jarraitutasunez. Zirkulazio-espazioak, bestetik, jolastokiko espazio libreetarantz eta hegoalderantz irekitzen dira. Kanpoko joko-gune horiek, hain zuzen ere, ipar-mendebaldeko orientaziotik babestuta geratuko dira eraikin berriarekin.

Kanpoko aldeetan, fatxada aireztatuak izango ditu eraikin berriak. Eraginkortasun termiko handiko fatxada da, teilatutik zimenduetarainoko inguratzaile isolatzaile jarraitu baten bidez, horrela zubi termikoak saihestuz. Era berean, kanpoko arotzeriari dagokionez ere, ezaugarri nagusia zubi termikoaren haustura izango da, isolatzaile akustikoarekin eta eguzki-kontrolarekin, isolamendu termiko eta akustiko egokia lortzeko.

Arrasate Herri Eskola HLHren eraikin berriaren instalazioen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Lehen Hezkuntzako 6 gela
- Informatika/ingeleseko gela
- Musika/plastika gela
- Banaketarako 2 gela

- Psikomotrizitate gela
 - Erabilera anitzeko gela
 - Liburutegia
 - Gimnasioa + aldagelak (255 m²)
 - Jangela + officea (207 m²)
 - Aterpeko gune estalia (247 m²)
- Eraikitako azalera guztira: 3.552,09 m²
Lizitazio prezioa: 5.731.067,15 (BEZ barne)

Proiektuak 17 hilabeteko exekuzio epea izango du, lanak hasten direnetik zenbatzen hasita. Gobernu Kontseiluak lan hauek burutzeko gastua onarturik, Hezkuntza Sailak berriro abiatuko du eraikuntza-proiektu hori esleitzeko prozesua. Aurreko lizitazioan esleitu gabe geratu zen, enpresa esleipendunak uko egin ondoren. Oraingo honetan, Hezkuntza Sailak prezioa eguneratuta eta %26 handituta atera du proiektua lizitaziora.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

EUSKO JAURLARITZAK 5,14 MILIOI EUROKO LAGUNTZA ONARTU DU BIDAIARIEN ETA SALGAIEN GARRAIO-ENPRESAK MODERNIZATZEKO, NEXT GENERATION EB FUNTSEN BIDEZ

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio errepideko bidaiarien eta salgaien garraio-enpresa txiki eta ertainak modernizatzeko laguntzak arautzen dituen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren aginduari. Guztira 5,14 milioi euro bideratuko dira Next Generation EB funtsen eta Gobernu Zentralaren Berreskuratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez.

Mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatua lortzeko helburuarekin, laguntzen bidez garraio-enpresen eta -sistemaren efizientzia areagotu nahi da, digitalizazioa, jasangarritasuna, konektagarritasuna, sistemen berrikuntza eta enpresetan teknologia berriak sartzea sustatuta. Horrez gainera, sistemen eta prozesuen arteko elkarreragingarritasuna bermatzeko, laguntzek operadoreak eta zama-enpresak ere barne hartuko dituzte.

Laguntza horiez gainera, Garraio Sailak datozen asteotan argitaratuko du errepideko pertsonen eta salgaien garraio publikoan teknologia eta segurtasun sistema berriak ezartzeko laguntzak arautuko dituen beste agindu bat. Azkeneko ekitaldietan igo egin da laguntza horien kopurua.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK PADI PROGRAMAREN PRESTAZIOA HOBETU ETA ARINDU DU; HORRETARAKO, DEKRETU BIDEZ ARAUTU DU PROGRAMA

Gobernu Kontseiluak, Gotzone Sagardui Osasuneko Sailburuak proposatuta, gaur, Euskadiko 7 eta 15 urte bitarteko herritarrentzako aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko dekretua onetsi du.

Gaur arte, programan parte hartzen zuten profesionalak deialdi publikoen eta dagozkien administrazio-kontratuen bidez parte hartzen izan dute.

Dekretu horren helburua da asistentzia eta kudeaketa horren edukia eta irismena ezartzea, Euskadiko osasun-sistemaren kargura. Hura duela 33 urte Euskadin ezarritako Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren (PADI) bidez gauzatuko da, eta ekitatean oinarritutako aho-hortzen osasun-arreta bermatzen duten prebentzio-neurrien eta asistentzia-jarduketan multzoa definitzen du.

Aurrerantzean, zerbitzuaren prestazioa arindu egingo da, programan parte hartzen duten profesionalak Sailarekin administrazio-harreman errazagoa izateko aukera emango duen sistema baten bidez.

Dekretu horren bidez, PADIren osasun-asistentzia bermatzen zaie hura jasotzeko eskubidea duten herritarrei, 187.371 umeri, zehazki, 2023. urterako, Eustaten datuen arabera. 6.754.476 €-ko gastua aurreikusten da.

Ume onuradunek 7 urte betetzen dituzten urteko urtarrilaren 1ean izango dute prestaziorako sarbidea, eta 15 urte betetzen dituzten urteko abenduaren 31ra arte izango dira bertan.

Era berean, atzerritar adingabeen aldi baterako lekualdaketakoko programa humanitarioetan hartutako 7 eta 15 urte bitarteko pertsonak ere izan ahalko dira programaren onuradun.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK BI MILIOI EURO BIDERATUKO DITU LANTOKIETAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO LANHITZ DEIALDIRA

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2023ko Lanhitz deialdia. Lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko dirulaguntzak ematea da deialdiaren helburua.

Guztira, Kultura eta Hizkuntza Politika sailak, bi milioi euroko aurrekontua bideratuko du deialdi honetara eta lau motatako jarduerak lagunduko dira diruz:

- Lehenengo multzoa: 150.000 euro banatuko dira entitatean euskara planik izan gabe, euskararen erabilera edota presentzia sustatzeko jardueretan.
- Bigarren multzoa: entitatean euskararen egoeraren diagnostikoa egin eta euskara plana diseinatzea, eta, nahi izanez gero, abian jartzea ekintza solteak eginez. 200.000 euroko diru partida dago horretarako.
- Hirugarren multzoa: entitatearen euskara plana eta urteko kudeaketa plana oinarri izanda, euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko jarduerak. 1,1 milioi euro bideratuko dira multzo honetara.
- Laugarren multzoa: entitateko euskara planak ibilbide luzea izanda, edo euskararen kudeaketan maila aurreratuan egonda, euskara planetik harantzagoko hizkuntza proiektu estrategikoak garatzea. 550.000 euroko diru partida dago multzo honetako proiektuak laguntzeko.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2022ko deialdian 143 dirulaguntza banatu ziren eta onuradun horien artean 42 entitatek lehenengo aldiz jaso zuten dirulaguntza.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK 1,4 MILIOI EUROKO DEIALDIA ONARTU DU ARTE ESZENIKOEN EKOIZPEN PROFESIONALAK SUSTATZEKO

Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren deialdiaren helburua antzerki, dantza eta zirku ekoizpen profesionalak sustatzea da horretarako 1.400.000 euroko dirulaguntza onartu du. Horrela produkzio eszenikoa ahalbidetzen duten prozesu desberdinak finantzatuko dira. Neurri horren bitartez, euskal konpainien sorkuntza-lana bultzatzeko formula lortu nahi da eta, bide batez, talde horien ahalegina aitortzeaz gain, beren lanak beste merkatu batzuetara zabaltzeko aukerak eskaini, beren finantzabideak ugaritu daitezten.

Deialdi honetara bideratuko diren 1,4 milioi euroak honela banatuko dira:

- **Hitzartutako zirkuitua duten produkzioak egiteko laguntza:** 245.000 euro bideratuko dira 2023ko uztailaren 1aren ondoren eta 2024ko azaroaren 30a baino lehen estreinatzen diren produkzio-proiektuak laguntzera. Kalendarium programaturiko diren ekoizpen proiektuak 2023ko maiatzaren 18tik aurrera estreinatu ahal izango dira. SAREaren antzokiekin hitzartutako bira bat aurkezten badute ere eskuratu ahal izango dute dirulaguntza beti ere SAREaren antzokiren batean ekoizpena estreinatu eta hurrengo lau hilabeteetan egiten bada.
- **Produkzioak I egiteko laguntzak:** Izaera profesionaleko lehen proiektuak, izaera berritzaile esanguratsua duten proiektuak eta berariaz ikerketara eta esperimenez bideratutako obrak lagunduko dira diruz. Laguntzen zenbatekoa 175.000 eurokoa da. 75.000 euro antzerkirako eta 100.000 euro dantzarako.
- **Produkzioak II egiteko laguntzak:** 2023ko martxoaren 30aren ondoren eta 2024ko ekainaren 30a baino lehen estreinatzen diren produkzioak lagunduko dira diruz. Guztira, laguntzen zenbatekoa, 280.000 eurokoa da. 160.000 euro antzerkirako eta 120.000 euro dantzarako.
- **Bi urteko jarduera eszenikorako laguntzak:** 700.000 euro banatuko dira 2023-2024 urteetan garatuko diren proiektu eszenikoen artean beti ere, Euskal Autonomia Erkidegoko merkatua zein kanpoko merkatua kontuan hartzen dituen birako plan bat badute.

Guztira deialdi honetan 882.000 euroko diru partida dago aurreikusita antzerki arloko dirulaguntzetarako eta 518.000 eurokoa dantza arlokoetarako.

Iazko deialdian Kultura eta Hizkuntza Politika sailak arte eszenikoen ekoizpenerako 38 diru laguntza eman zituen: hitzartutako zirkuituarekin egindako 8 ekoizpen lagundu ziren; produkzioak I egiteko dirulaguntzen arloan 16 dirulaguntza eman ziren; produkzioak II egiteko arloan 8 eta beste 6 laguntza eman ziren bi urteko jardunetarako.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK EUSKAL KULTURA ONDAREAREN GARRANTZIA AZPIMARRATU ETA HEDATZEKO JARDUERAK SUSTATZEKO DEIALDIA ONARTU DU GAUR

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak hiru milioi euro bideratuko ditu Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzetara. Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

- Kultura-ondareari balioa ematea, hau da, kultura-ondasunak ezagutzeko, balioa emateko, aitortzeko eta erabilera emateko jarduerak.
- Kultura-ondarea hedatzeko, hau da, sentsibilizazioaren, sozializazioaren eta ondarearen interpretazioaren bidez ondare-balioen berri emateko jarduerak.
- Babes berezi edo ertaineko kultura-ondasun higiezinak edo haien ingurunea desjabetzeko finantzaketa.
- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden ondasunak edo babestuak izateko espedientea irekita dutenak zaindu, aberastu eta babesteko beste edozein jarduera.

Diruz lagunduko diren proiektuak 2023ko ekitaldian hasi beharko dira edo hasita egon beharko dute, eta beranduenik ere, 2025eko azaroaren 30a baino lehenago amaitu beharko dira.

Eskaerak aurkezteko epea hilabeteko epea izango da deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko dirulaguntzen 2022-2024 deialdian guztira 19 proiektu lagundu ziren diruz, besteak beste, Gazteluko Muinoa balioztatzea eta berreskuratzea; Argiñetako tenpluaren eta nekropoliaren balorizazioa; Portillako Gazteluaren Omenaldi Dorrearen balioa nabarmentzeko eta zabaltzeko proiektua; Zalduondo bolatokia birgaitzea, Arabako bola-jokoa eta Bidea interpretatzeko zentroa; Zumaiako Karmeldar Oinutsien Komentua Birgaitzeko Egikaritze-Proiektua Exekutatzeko Obra; Azkoitiko Nagusia 80ko Idiak ez Ederra birgaitzeko, sendotzeko eta berrerabiltzeko fase 1.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

JAVIER HURTADO SAILBURUAK MERKATARITZA MODERNIZATZEKO FUNTSAREN BIGARREN DEIALDIA AURKEZTU DU, 4 MILIOI EUROKOA

- **Gainera, Interes Kulturalako 14 Ondasuni mesede egingo dieten hitzarmenak garatu dira. Ondasun horiek Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionalaren laguntzak jasoko dituzte (5,5 milioi euro Euskadin).**

Javier Hurtado sailburuak agerraldia egin du Gobernu Kontseiluaren agerraldian, Merkataritzarako Funts Teknologikoaren bigarren deialdia abian jarri dela eta Euskadin 2021-2022 Xacobeo Turismo Plan Nazionalari esker garatuko diren proiektuen hitzarmenen berri emateko. Bi programa horiek Next Generation EU Europako Funtsen finantzaketa dute.

Sailburuak Funts Teknologikoak Euskadiren hurbileko merkataritzarako duen garrantzia azpimarratu du. Laguntza hori 4,1 milioikoa da Euskadirentzat, Next Generation EU Europako Funtsekin finantzaturako 2 deialditan (2022-2023). Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago, eta gaur onartu dugu 2023an egindako jarduketetarako bigarren deialdia, 2,1 milioi eurokoa. Helburua lehiakortasuna eta modernizazioa bultzatzea eta bultzatzea da, merkataritza-sektorearen eraldaketa digital eta iraunkorraren bidez. 4 milioi horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Next Generation EB funtsen gainerako ekarpenei gehitu behar zaizkie, orain arte 85 milioi baino gehiago txertatu baitituzte euskal turismoaren eta merkataritzaren sektoreetan.

Funts Teknologikoak bi laguntza-lerro ezartzen ditu, erakundeen tipologiaren arabera. Alde batetik, merkataritza-sektoreko mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainei zuzendutako lerro bat. Bestalde, beste ildo bat elkarte eta elkarteentzat da, federazioak eta konfederazioak barne.

Bi kasuetan, laguntzaren xede izan daitezkeen gastuak, lehenik eta behin, eraldaketa digitalera, omnikanalitera, erosketa-esperientzia hobetzera, zibersegurtasuneko soluzioetara edo mugikorretarako edo bestelako gailuetarako aplikazio informatikoetara bideratutakoak dira. Baita salmenta-puntuaren eraldaketari eta iraunkortasunari eta ekonomia zirkularrari lotutako inbertsioetarako eraldaketari ere. Laugarren eta azken inbertsio-lerroak hornidura- eta trazabilitate-kateari buruzkoak dira. Gainera, eta elkarteentzako laguntza-lerroaren kasuan soilik, diruz lagundu daitezkeen bosgarren puntu bat sartu da, merkataritza-guneetan WiFi sareak instalatzeari eta merkataritza-eskaintzari buruzko informazioa ematen duten aplikazioei buruzkoa, ondarearen elementuekin batera, turismoa sustatzeko gastronomia-, kultura- eta erosketa-eremuetan.

Inbertsioak % 100era arte finantzatu dira; enpresa txikien kasuan, 50.000 eurora arte irits daitezke, eta elkarteetan 100.000 eurora arte. Aipatzekoa da deialdi hau mota guztietako saltokietara bideratzen dela, txikizkarietara edo handizkakoetara, automobilak konpontzearekin lotutako zerbitzuak barne. Horiez gain, elikagai-establezimenduak, konponketa-tailerrak, farmaziak eta ile-apainketako zerbitzuak ere sartzan dira, merkataritzara bideratutako laguntza-programetan ohikoenak direnak, besteak beste.

Merkataritzako Funts Teknologikoaren lehen deialdia joan den azaroan egin zen. 504 eskaera aurkeztu ziren, ETEen 498 eta 6 elkarte, gehienak dagoeneko ebatzita. Euskadi eskaera gehien eta azkarrago esleitu dituen Autonomia Erkidegoa da.

Merkataritza-enpresek bigarren deialdi hau egiteko aukera izango dute 2023an egiten dituzten jardueretarako. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, eta deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da. Aurreikuspenen arabera, deialdia martxoaren 27an egingo da.

Bestalde, Next generation EU funtsekin finantzatutako laguntza-programen ereduzko hitzarmen bat onartu da, Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionala. Donejakue Bideko turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu iraunkorrak dira.

Toki-erakundeei eta sektore publikoko fundazioei zuzendutako hitzarmen tipoa, 14 ondasun biltzen dituena. Ondasun horiek, guztira, 5,5 milioi euroko aurrekontuarekin birgaituko dira.

Euskadiren kasuan, hauek dira Europas laguntzak jasoko dituzten proiektuak: Portugaleten, Canilla eraikina; Gasteizen, Santa Maria katedral zaharra; Zalduondon, Bolo etxea; Hondarribian, Guadalupeko Andre Mariaren gotorlekua; Markina-Xemeinen, Esperantza eraikina eta Aretxinagako San Migel ermita. Gernika-Lumon hobekuntzak egingo dira Montefuerte jauregian eta Zumalakarregi Museoa dagoen Ormaiztegiko Iriarte Erika etxean. Irunen, Urdanibia Ospitaleari eta Gazteluzar Gazteluari emango zaie dirulaguntza. Beasainen Igartzako Monumentu Multzoa, Balmasedan Horcasitas Jauregia eta Enkarterria. Azkenik, Zumaian Karmeldar Oinutsen Komentua eta Seguran Lardizabal Jauregia.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO HA APROBADO HOY LA *ESTRATEGIA VASCA 2030 PARA FAVORECER LA EMANCIPACIÓN JUVENIL*

- **Desarrolla las previsiones tanto de la Ley de juventud como de la Estrategia de reto demográfico, aprobadas en marzo y junio de 2022 respectivamente**
- **El objetivo para 2030 es reducir la edad media de emancipación a los 28 años y aumentar la tasa de emancipación hasta el 50%**
- **Incluye diez proyectos trectores y 27 iniciativas complementarias, estructurados en cinco ámbitos: empleo, vivienda, renta, cohesión y resiliencia**
- **Contempla, como una de sus novedades, una ayuda de 300 euros al mes durante dos años para jóvenes de 25 a 29 años que entrará en vigor en 2024**
- **Lo relevante es que no es una iniciativa aislada, forma parte de un ecosistema de medidas para favorecer los procesos de autonomía de las personas jóvenes**
- **El décimo proyecto tractor plantea impulsar un Pacto de país con y por la juventud en estrecha colaboración con el Consejo de la Juventud de Euskadi**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la Estrategia Vasca 2030 para favorecer la Emancipación Juvenil. Responde al compromiso 92 del Programa de Gobierno. El adelanto de la edad media de emancipación está vinculado a las oportunidades de las personas jóvenes, el rejuvenecimiento de la sociedad vasca y la cohesión inter e intrageneracional. Es un objetivo de país y una prioridad de primer orden para el Gobierno Vasco.

El pasado 7 de diciembre de 2022 el Consejo de Gobierno conoció la propuesta inicial y acordó establecer un periodo de dos meses para favorecer la participación en su contenido. En este periodo se han recibido aportaciones de Foro Zedarriak, Diputación Foral de Bizkaia, ELKARTEAN (Asociación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Euskadi), FEDEAFES (Federación de Euskadi de asociaciones de familiares y personas con enfermedad mental), EGK (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua), Astialdi Sarea y EUDEL.

El Gobierno Vasco compareció, además, el 22 de febrero de 2023, en la Comisión de Políticas Sociales y Juventud del Parlamento Vasco para presentar su contenido. De este modo, el documento final de la Estrategia ha

incorporado un importante número de aportaciones que han mejorado su contenido y actualizado sus datos y previsiones.

El documento de la Estrategia se presenta en dos volúmenes: I Marco de Análisis, y II. Marco Operativo. El primero ofrece el conjunto de datos y referencias que sirven de base para el análisis. Este diagnóstico precisa, en primer lugar, que los factores del retraso en la emancipación no son solo materiales, también son culturales.

No obstante, entre los materiales, destacan con claridad tres factores interrelacionados y acumulativos a lo largo del tiempo: empleo, vivienda y renta disponible. En las últimas décadas, las sucesivas generaciones de jóvenes han padecido la incertidumbre en el empleo y su calidad; la escasez y carestía de la vivienda; y por último, rentas disponibles insuficientes.

La segunda clave permite identificar que las principales actuaciones deben focalizarse en la franja de 25 a 29 años y, particularmente, entre quienes no se emancipan o no consolidan su emancipación porque, incluso teniendo empleo, no disponen de una renta suficiente para ello.

